



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

GERRA eta BAKEA

UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK

Publikoa:

DBHko 2. ziklo, Batxilergoa eta Helduen Hezkuntza.

Taldeak: Gehienez 30 pertsona.

Iraupena: Ordu 1 30'.

Prezioa: 2 € pertsonako.

Materiala:

- Lan-fitxa guk ematen dugu.
- Axota edo arkatza ikasleek ekarri behar dute. (Ez da beharrezkoa beste paperik, ez baldin bada ikastetxeak berak erabaki duela galdekari edo ariketa bereziren bat egitea, noski.)

Erreserbak:

¡Ez ahaztu alde zuretik erreserba egitea (Tel.: 943 88 99 00)!

Kontsultak eta informazioa:

ZUMALAKARREGI MUSEOA
Muxika egurastokia 6
20216 ORMAIZTEGI
(Gipuzkoa).
Tel.: 943 88 99 00
Faxa.: 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
http://zm.gipuzkoakultura.net

Ordutegia:

Asteazkenetik ostiralera:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00.
Larunbat, igande eta jai egunetan:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00

UNITATE DIDAKTIKOA GERRA ETA BAKEA

Lehen Guda Karlistan oinarrituz, gatazkaren adibide gisa indarkeriaren sustrai, modu eta ondorioei buruz gogoeta egiteko proposamena,. Gaurkotasun osoa duen hausnarketarako ibilbidea, gatazken ebazpenerako bake prozesuak ulertzen laguntzen duena.

GURE PROPOSAMENA:

Bortizkeriaren fenomenoak ulertzeko bere kontestuan kokatu behar da. Bortizkeria, aldiz, ez da sintoma hutsa izaten, agertu orduko eragile bilakatzen da. Lehenengo Karlistada gugandik nahikoa urruti dago denboran, karlistek eta liberalek defenditzen zituzten ereduak ez dute gure errealitatean zentzurik. Baina Foruen gaia arazo dinastikoari nagusitu zitzaionez, Karlistadak gaur egungo problema garrantzitsu baten sorreratzat jotzen dira, euskal lurraldeen eta espainiar Estatuaren arteko harremanena.

Batetik urruti, bestetik hurbil, oreka mantentzen jakinez gero erakargarria izan daiteke garai historiko hau bortizkeriaren perspektibaz aztertzea. Izan ere, proposamen hau beste ibilbide batekin edo azalpen zabalagoekin bateragarria da inolako problemarik gabe. Arriskuak ere badaude, noski, bizi garen errealitatean bakea esan orduko zer esan ez baina nork esan begiratzen baita. Egia da karlismo hitzak konnotazio oso desberdinak dituela gaur egun, batzuentzat positiboak eta besteentzat negatiboak, gaztetxo gehienek gehienek inolako erreferentziarik ez badute ere. Historia-museo baten egitekoa da, besteak beste, aurreiritziak eta alderdikeriak zuzentzeaz gain gertaera historikoak anakronismo eta estrapolaziorik gabe azaltzea, eta Zumalakarregi Museoa horretan dihardu.

Ibilbide hau ez da museoan barrenako paseo bat izango. Ikasleei datuak biltzeko ez ezik pentsatzeko eskatuko zaie, gogoeta egiteko. Eztabaidak garrantzi handia izango duenez, gidariaren eta irakasleen lana eztabaida piztu eta bideratzea izango da.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

IBILBIDEAREN ARDATZAK:

- **GUDAREN HASIERA. Oinarrizko bortizkeria: bestearen deskalifikazioa.**

Gatazka baten muina, estrukturala, askotan gatazka koiunturaletan adierazten da. Ondorio bezala sortutako bortizkeriak, ordea, bortizkeria gehiago ekarri, jatorrizko arazoa gaiztotu eta soluziobidea zailago egin dezake.

Eztabaidagai: ankerkeria nagusi, noren mesedetan?

- **GUDAREN MUGAK. Bortizkeriaren mailak**

Militarizazioak bortizkeria neurtu eta arautu egiten du, helburuak lortzeko bitarteko bat da. Ankerkeria, bortizkeriaren alderik latzena apaltzearen truke (ez baldin bada buru hotzez erabiltzen, noski), gizarte zibila interes militarren menpe geratzen da.

Eztabaidagai: gizarte militarizatua baketsua izan daiteke?

- **SOLUZIO BILA. Hitzek armek baino indar gehiago dutenean**

Bortizkeria gatazkaren azala baldin bada, mamira jo behar. Beti al dago garbi zer den mamia eta zer azala? Informazioaren kontrola.

Eztabadagai: bakearen alde dena da zilegi?

- **BAKEA. Sinboloak eta edukiak**

Nork egiten du bakea? Borondate oneko gizonak? Eta emakumeek? Altruismoa ala pragmatismoa, zein da bake-bidea?

Eztabaidagai: barkatzea eta ahaztea bat dira?

- **BORTIZKERIAREN ONDORIOAK. Biktima errugabeak**

Biktimak aukeratzeko irizpideak. Bi aldeek bortizkeria errugabeen kontra erabiltzen badute, biak berdin deskalifikatzen dira?

Eztabaidagai: non geratzen da herritarren protagonismoa gerretan?

- **BORTIZKERIAREN ONDORIOAK. Gudaren eta bakearen arteko mugak**

Bukatzeko, hasierako problemari heldu: bortizkeriak bortizkeria dakar, egoera ekonomiko-politiko-sozialen sintoma ez dena.

Eztabaidagai: si vis pacem para bellum? Bortizkeriarik gabeko bizitza badago?

IBILBIDE HONEN HELBURUA:

Zentzu kritikoa bultzatzea. Ikasleek bakea eta bortizkeria hitzen esanahia alde guztietatik, alderdikierarik gabe eta bere osotasunean begiratuta benetan barneratzea nahi dugu, Lehen Karlistada ez ezik beste gertaera historikoak ere aztertzerakoan.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

PROZEDURAZKO EDUKINAK:

- **Talde-lana:** hiru, lau, bosnaka jarrita, ikasleek bilatu behar dute fitxetan egiten zaizkien galderen erantzuna. Haien artean galderak egin, datuak alderatu. Banaka joanda, ez dago erantzuna alderatzerik; denak batera eginda, praktikan batzuek erantzun eta besteek jarrera pasiboa har dezakete.
- **Informazioa** museoko idazki, objektu eta irudietan **bilatu** behar denez, testu juridiko-politikoek ez ezik bestelako lekukoek ere balore dokumentala dutela eta haietaz baliatzen ikasiko dute, bakoitzari dagokion garrantzia emanez.
- **Denboraren eta espazioaren zentzua lantzea.** Mapa, maketa, ardatz kronologiko, ikus-entzunezkoak, maleta didaktikoak bezalako baliabideei etekina ateratzen zaie.
- **Arazo historikoen bilakaera.** Gure kasuan Aintzin Erregimenetik Liberalismorako aldea zertan zen, prozesu horretan aldaketaren eragileak eta oztopoak zeintzuk ziren bereiztea, beti ere arazo funtsezkoak eta azalekoak ongi mailakatuta. Fitxak eskolan jasotako ezagutzak ordenatu eta sendotu nahi du, ikasleak hobeto barnera ditzan.
- **Anakronismoak** eta estrapolazioak saihestuta, gaurkoaz eta iraganaz gogoeta egitea bilatzen da galdera batzuetan.
- **Lantegiko ariketek** XIX.eko giroan murgil gaitzakete proposamen ludikoen bitartez.

JARRERAZKO EDUKINAK:

- **Zentzu kritikoa**, iragana eta oraina aztertzerakoan alderdikeriak eta sinplekeriak bazter utzita.
- **Errespetua Historia** eta honen lekuko den ondareari.
- **Jarrera ezkorra bortizkeriaren aurrean.**
- **Historiaren jakin-mina** eta lanerako partaidetza aktiboa.
- **Emakumearen egoeraren** bilakaera historikoaren kezka, eta emakumeen edo bestelako kolektiboen diskriminazioaren kontrako jarrera.



Muxika Egurastokia 6.
20216 ORMAIZTEGI.GIPUZKOA
T.+34 943 88 99 00 F. +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

BISITALDIAREN NONDIK NORAKOAK:

- Sarrera txikia denez, komeni da ARDURADUNA SARTZEA TALDEA BAINO LEHEN, azken xehetasunak erosoago argitzeko.
- TALDEEN gehieneko KOPURUA 30 LAGUNENA DA. Gehiago izanez gero bi taldetan banatuko dira.
- Taldea sartu orduko, FITXA BANA EMANGO ZAIE IKASLEEI. Museoratu baino lehen arkatza edo axota beraiek ekarri behar dutela gogorarazi behar zaie. Talde bakarra izan edo gehiago izan, bisitaldiaren ordena alda daiteke, baina oro har denak berdintsu arituko dira.
- GIDARIAK museoaren ongietorria eta aurkezpena egin ondoren, FITXAN LANDU BEHARREKO GAIARI EKINGO DIO. Sarrera orokorra denen artean egingo da.
- FITXA LANTZEKO hirunaka, launaka, bosnaka, antolatuko diren TALDEEK DAGOKIEN GALDERARI ERANTZUNGO DIOTE. Erantzuna Museoan barrena aurkituko dute. Horrela, erakustareto guztiak deskubritzen dituzte, lasai, bakoitzak bere erritmoan eta gehien interesatzen zaionari erreparatuz, baina beti ere eskatutako informazioaren bila. Nahiz eta galdera bakarrari erantzun, aurretik helburu zehatz bat jarri izanak, eta erantzun hori non den ez dakitenez, erakustaretoen arteko ibilaldia ez da distrakzio hutsa izango. Izan ere, gidaria haien zalantzak argitzeko egongo da.
- Gero, DENAK BERRIRO BILDU ETA GIDARIAREN LAGUNTZAZ GAIA BERRAZTERTUKO DA. Taldetxoek emaitzak kontuan hartuta, denek borobilduko dute lehenago lortutako ikuspegi partziala.